



argia fundazioa



2024ko MEMORIA



KUDEAKETA AURRERATUARI
URREZKO AINTZATESPENA
RECONOCIMIENTO DE ORO
A LA GESTION AVANZADA



emakumeen eta gizonen
berdintasunerako
lankidetzaz erakundeak
entidad colaboradora
para la igualdad de
mujeres y hombres





Argia fundazioa

Gure **MISIOA** nahasmendu mental larria duten pertsoneri eta haien familiei laguntzeko gizarte-eskaerari erantzutea da, haien jendaurreko irudia eta bizi kalitatea hobetze aldera. Guretzat ezinbestekoa da berrikuntzaren eta ezagutzaren sarea garatzea.

HAUEK DIRA GURE **BALIOAK**:



ERLIJIO-KULTURA -
KULTURA
HUMANISTA



LIDERGO PARTE-
HARTZAILEA



GIZARTEARI
ZABALTZEA



GARDENTASUNA



BIKANTASUNA LANEAN
ETA SORMENEAN

GURE **PATRONATUA**



Gure jarduerak, nagusiki, **Garapen Jasangarriko Helburu** hauetan eragin du:

3 SALUD
Y BIENESTAR



8 TRABAJO DECENTE
Y CRECIMIENTO
ECONÓMICO



11 CIUDADES Y
COMUNIDADES
SOSTENIBLES



12 PRODUCCIÓN
Y CONSUMO
RESPONSABLES



16 PAZ, JUSTICIA
E INSTITUCIONES
SÓLIDAS



17 ALIANZAS PARA
LOGRAR
LOS OBJETIVOS





2020-2024 aldi estrategikoa ixtea

2024an itxi dugu **2020-2024 aldi estrategikoa**. Azken 5 urteetan zehar Argia Fundazioa finkatu egin da bere arreta- eta kudeaketa-ereduan, non gaixotasun mentalak dituztenak beren osasunaren eta Argian jasotzen dituzten zerbitzuen protagonistak izan diren. Gainera, urte hauetan zehar gizarte-jarduera indartsu bat garatu dugu eta horri esker, desgaitasunaren arloan Bizkaiko erreferentzia-erakunde gisa kokatu gara.

Zehazki:

- **Erabiltzaileak, inguru afektiboak eta aliatuek adierazi dute oso pozik daudela Argiak beren bizitzetan izan duen eraginarekin.** Laguntzen diegun pertsonak beren bizitza gehiago kontrolatzen dute, inguruarekin harreman estuagoa dute, beren eskubideekiko kontzientzia handiagoa dute eta gizartean inplikatuago daude.
- **Nahasmendu Mental Larria (NML) dutenei laguntzeko baliabide publikoen sarean integratuta dauden zerbitzu-eskaintza** ematen dugu eta zerbitzu horiek ondo baloratuta daude. Plaza-kopurua gehitu dugu (2020an 294 genituen eta 2024an 314) gizarteari laguntzeko, eta aldi osoan lagundu diegun pertsonak gehiago izan dira plaza-kopurua baino. Modu horretan, xede horretara zuzendutako baliabide publikoak eta gizarteak gaixotasun mental larriak dituztenei ematen dien laguntza optimizatzen ditugu.
- **Gizarte-konpromisoko eta estigmen aurkako jarduera** hazi egin da eta udalak eta bestelako erakundeak oso pozik eta lankidetzan egonkorragoak egiteko prest daude.
- Aldi honetako **ezagutzaren kudeaketak eta berrikuntza-proiektuek** ahalbidetu dute irtenbide berriak aurkitzea esku-hartzeko eta kudeaketako ereduak ezartzeak planteatzen dituen erronkei: ezagutza kritikoa, erakundeetako diseinuak, lanpostuak berriro diseinatzea eta taldeak kudeatzeko tresnak.





2024ko jarduera-fokuak

2024an zehar, erabiltzaileen osasuna eta bizi-kalitatea hobetzen laguntzeaz gain, arlo hauetan jarri dugu fokua:

- Interes-taldeen Argia estrategian **parte hartzeko dituzten aukerak gehitzea**.
- **Argiaren jarduera finantzatzea**, azpiegiturak hobetzea eta behar berriei erantzutea.
 - Finantzaketa publikoa (ez hitzarmena) % 25,35 gehitu da aurreko urtearekin alderatuta.
 - Finantzaketa pribatua (kuotarik gabe) % 23,65 hazi da.
- **Komunitateari** elkarrekin egoteko eta gizarte-kohesioa sustatzeko espazioak ematea.

Lan hori egitea posible izan da **Argia osatzen dugun guztion lanari esker**; langileak, boluntarioak, erabiltzaileak eta inguru afektiboa. Liderra gure patronatua izan da eta laguntzailea Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Saila.

EMAITZAK

HELBURUAK LORTZEA

Interes-taldeen **gogobetetasuna** oso **altua** da, 8 puntukoa. Urte hasieran finkatu genituen helburu estrategikoen **% 90,57 lortu ditugu**.

FINANTZAKETA PUBLIKOA

Finantzaketa publikoaren ehunekoa: % 94,60

- Hitzarmenaren % 94,11
- Beste batzuk % 5,89

EMAKUNDEREN ERAKUNDE LAGUNTZAILE GISA AITORTZEA

Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzen duen erakunde gisa aitortua izatea: II. Berdintasun Plana.

URREZKO A ZIURTAGIRIA 20 KUDEAKETA AURRERATUAN

Urrezko A ziurtagiria - **Kudeaketa aurreratuari ematen zaion euskal saria**- lortu dugu. Sari horrek kudeaketa-praktika aurreratuena dituzten eta interes-taldeen eta gizartearen gogobetetasun orekatua bilatzen duten erakundeak aitortzen ditu.

ERABILTZAILEEN SEGURTASUNAREN ZIURTAGIRIA

179003 ziurtagiria berritu da eta zabaldu egin da egoitza eta eguneko ospitale guztietara dagoen irismena. Aurrera egiten jarraitzen dugu **eguneroko praktikan sistema ezartzen eta segurtasunaren kultura barneratzen**.

EPE LUZEKO ZAINZAK AITORTZEA

Erabiltzaileak Argia Fundazioaren kudeaketan parte hartzen dutela aitortzea. Bide azkarra da autodeterminazioa sustatu eta kudeaketa malgutzeko.

PRAKTIKA ONEN FINALISTA BINKLUSIONEN

Finalistak praktika onarekin: **Argia Fundazioa, kudeaketa etikotik gizarte-inpaktua duen erakunde**

SAREKIDE 2024 SARIA

Getxoko Udalak eta Sarekidek emandako saria **Ale Hop taldeari, estigmaren aurka egindako borroka**rengatik.





Eragina osasunean eta ongizatean

Argian gaixotasun mental larriak sufritzen dituztenei laguntzen diegu, beren bizi kalitatea eta autonomia hobetzeko eta erabaki dezaten nola bizi nahi duten beraiantzat garrantzitsua denarekin bat etorriz. **Zerbitzu soziosanitarioak** ditugu eta laguntza-maila ezberdinak eskaintzen ditugu horietan; **eguneko ospitalea, egoitzak, gizarte-kluba, bizi independenteari laguntzea (Zabalduz), etab.** Aurreko guztiak egokitu egiten ditugu modu integralean laguntzen diogun bakoitzari. Laguntza hori **diziplina arteko talde profesionalak** eskaintzen dute eta beren esku-hartze guztiak gure etika-kodearen barne sartzen dira.

2024an



314

eskainitako plazak



349

lagundutako pertsonak

EMAKUME
AK
% 35

GIZONAK
% 65

batez
besteko **55 urte**
adina





2024an eskainitako plazen % 80 Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Sailak finantzatu du.






Eragina osasunean eta ongizatean



- Gure laguntza jasotzen duen biztanleriak ezaugarri egonkorak mantendu ditu 2020-2024 aldian, aldaketa txikiekin.
- Aurreko urteetako dinamika jarraitu dugu gizarteari eskaintzen dizkiogun plazei dagokienez **egoitza baliabidean ez ezik. Bertan, plazak asko gehitu dira** (49 plaza) eta, beraz, 2024an gure laguntza jaso dutenak (56 pertsona) ia % 20 gehitu dira aurreko urtearekin konparatuta.
- Adinari dagokionez, aldi honetan jaitsiera txiki bat egon da, bereziki, eguneko ospitalean. Hori izan da adin nagusienekoak dauden baliabidea; **batez beste 55** urte dituzte.
- Generoari dagokionez, **orokorrean desoreka mantentzen da. Bi gizoneko-emakume bat da** kopurua, egoitzan ez ezik. Bertan orekatuago dago gizonen eta emakumeen presentzia, baina ez da berdina.



Eragina osasunean eta ongizatean




EMAITZAK

- Gaixotasun mentalen bilakaera aurreikustea zaila den arren, baliabide guztietan **erabiltzaile gehienek (% 60 eta % 79 artean) bilakaera positiboa izan dute**, bereziki, eguneko ospitalean.
- Gaixotasun mentala dutenen **arrazoi psikikoengatiko ospitaleratzeak** eskuhartze gisa interpretatu daitezke gaixotasuna kontrolatzeko asmoarekin, baina **sufritzen dutenentzat egoera "traumatikoa" ere bada**. Ospitalean eta etxeetan erabiltzaile gehienek ez dute esperientzia hori bizi izan eta egoitzan (gaixotasunaren larritasun handiagorekin) ez daude ospitaleratuta erabiltzaileen bi heren.



Eragina osasunean eta ongizatean



ROL ESANGURATSUAK



EMAITZAK

- Erabiltzaileen egunerokotasuna **jardueren inguruan igarotzen da eta beraiek planifikatu, egin eta ebaluatzen dituzte**. Baliabide guztietan erabiltzaileek jardueretan parte hartzen dute eta gizarte-kluba da bazkideak gehien inplikatzeko diren lekua.
- **Erreferentzia-profesionalak erabiltzailearen eta lantaldearen arteko bitartekari-lanak egiten ditu** eta erabiltzaileen bizi-proiektua garatzen laguntzen du, bai taldean, bai pertsonan zentratutako planean. Baliabide guztietan erabiltzaile gehienek (% 83k baino gehiagok) tresna hori dute eskuragarri, baina batzuek uko egiten diete arrazoi pertsonalak direla-eta.
- Erabiltzaileek "rolak" betetzen dituzte. Hau da: **talderako esanguratsuak diren funtzioak garatzen dituzte eta taldeak egindakoa aitortzen die**. Baliabide guztietan dinamikak sortzen dira taldea komunitate txiki bat bihurtzeko, non guztiek bete beharreko paper bat duten eta sentitzen duten taldeari balioa ematen diotela. Gizarte-kluba da rol ezberdin gehien sortzen dituen baliabidea.





Eragina osasunean eta ongizatean

- **Erabiltzaileak beren bizitzen eta zerbitzuen protagonistak dira.** Horretarako, bilerak egiten dituzte eta bestelako espazioetan ere parte-hartzea eta erabakiak hartzea sustatzen da.
- **Taldea eta pertsonen arteko harremanak garrantzitsuak dira erabiltzaileek beren trebetasunak, bizi proiektuak eta interesak garatu ahal izan ditzaten.** Horretarako, erreferentzia-taldeak bultzatzen ditugu eta elkarri laguntzeko eragileak ditugu. Pertsona horiek, beren esperientziaren bitartez, antzeko egoeretan dauden beste batzuei laguntzen diete.
- **Erabiltzaileek bizi-kalitatea hobetu nahi dute.** Horretarako, beharrezkoa da jasotzen duten arreta eta laguntza hobetzea eta hori lortzeko gutxitu egin behar dira esku-hartze profesionalak sortzen dituen kalteak eta segurtasun-kultura sustatu behar da. Erabiltzaileek eta profesionalek arlo horretan prestakuntza jasotzen dugu. Beste prestakuntza batzuk suizidioak prebenitzeko, berdintasunerako, genero-indarkeriarako eta lehen sorospenetarako izan dira.
- **Erabiltzaileek ingurumena zaintzen dute.** Talde batzuek birziklapenari buruzko prestakuntzak sustatzen dituzte eta ingurumena zaintzeko ekintzak garatzen dituzte.
- **Ongizate fisikoa bizi kalitatearen dimentsio garrantzitsua da** erabiltzaileentzat 2024an. Horretarako, kirol-jardueretan parte hartzea eta modu egokian elikatzeko “janari osasuntsuaren” tailerrak sustatzen ditugu.
- **Inguru afektiboak Argian parte hartzen du. Argian eskaintzen ditugun sarbide-bideak hobetzeko** komunikazio-pilotu bat garatu dugu (baliabideei buruzko informazioa, eskuragarri dauden laguntzak, urteko egutegia, whatsapp kanala...) eta eskubideen batzordearen parte dira.





Hobekuntzaren eta berrikuntzaren inpaktua

2024. urtean


- **Argiako kode etikoa hedatu dugu**; zehazki, profesionalek arreta zuzeneko konpromiso etikoak ezagutzea.
- Erabiltzaileei **laguntzeko kultura sortzea** sustatu dugu bizi esperientziekiko ikuspegi holistiko batetik, soilik gaixotasun mentala duen pertsona bat hautematearen ikuspegi zorrotzetik haratago joanez. Horretarako, erabiltzaileek hirugarrenen indarkeriaren eta suizidioaren aurrean duten zaurgarritasunarekiko ikuspegi profesionala zabaldu dugu.
- **Ezagutzaren eta berrikuntzaren kudeaketa erabiltzaileen eta beren inguru afektiboaren bizi-kalitatea hobetzera** bideratu dugu. Eraitza hobekuntza txikiak baina konstanteak lortzea izan da erabiltzaileen eta beren inguru afektiboaren egunerokotasuneko alderdietan.
- Berrikuntza jarraitu horren ondorioz, **hobekuntzak egin ditugu aisialdiaz eta denbora libreaz gozatzearen arloan** eta Arreta Indibidualeko Plana (AIP) gauzatzeko planteamenduan. Kasu bietan, fokua erabiltzaileen ahalduntzean eta beren bizitzaren autokudeaketan jarri dugu.
- Bizitegirekin batera erabiltzaileen **aktibismoa sustatzeko praktika onen gida** sortu dugu.

INTERES-TALDEEK BERRIKUNTZAREKIN DUTEN GOGOBETETASUNA



INTERES-TALDEEK
BERRIKUNTZAREKIN DUTEN
GOGOBETETASUNA

8,78



ERABILTZAILEEK PILOTUETAN DUTEN
GOGOBETETASUNA

7,73



LANGILEEK PILOTUETAN DUTEN
GOGOBETETASUNA

7,42





inpaktua komunitateetan

2024an gure gizartearekiko eta ingurumenarekiko konpromisoa hauek lortzera bideratu da:

- **Gure inguruarekin lan egitea** gizarte kohesionatua eta jasangarria eraikitzen.
- **Gure ezagutza ematea** gizarte-eragileen hausnarketetan eta lanerako lerro komunak ezartzea.
- **Ingurumena zaintzea bultzatzea**, gure jardueraren inpaktu negatiboak gutxituz eta gure inguruan inpaktu positiboak indartuz.

GURE INGURUA HOBETZEKO:

- **Herritarren batzarrak** sortu ditugu. Bertan, ingurumenaren inguruan pentsatu eta ingurumena zaintzeko ekintzak proposatzen dira. Eguneko ospitalean talde bat finkatu da eta talde horrek ingurumen-gomendioak ematen ditu eta sentsibilizazio-ekintzak antolatzen ditu.
- **Aurrezpen- eta zainketa-erabakiak** hartu ditugu kontsumoen kontrolean oinarrituta.
- Ingurua zainduago egon dadin, **hondartzak garbitzen** parte hartu dugu.

EZAGUTZA EMAN ETA PARTEKATZEKO:

- **Aktibismoaren I. Jardunaldia** sustatu dugu. Bertan, 80 aktibistek aktibismoaren eta prozesu horretan norbere burua zaintzeko moduen inguruan hausnartu zuten.
- **Ate Irekien Jardunaldiak** egin genituen eta gure funtzionamendua azaldu genion goiz batean bisitatu gintuen talde txiki bati.
- **Bi praktika on** aurkeztu ditugu erabiltzaileek Argia Fundazioaren kudeaketan duten parte-hartzeari buruz. Bide azkarra da beren autodeterminazioa sustatzeko eta Argia Fundazioaren kudeaketa malgutzeko. Erakunde honek gizarte-inpaktua du eta kudeaketa etikoa hizpide hartzen da.





inpaktua komunitateetan

ELKARBIZITZA HOBETZEKO:

- **AleHop taldeak 39 hitzaldi** eman zituen 2024an eta bere esperientzia zuzena azaldu zuen unibertsitateetan, institutuetan, hirugarren sektoreko elkarteetan eta udal-elkarteetan.
- Eraldatuz sarearekin eta Getxoko Udalarekin lankidetzan **komunitate-mural** bat egin genuen: “Tú, ¿encajas?” zioen mezuak. Udalerriko 8 erakunderekin eta 80 pertsonekin egin genuen Argiaren eguneko ospitalean.
- **Gabonetako ospakizuna eskaini genien Getxon bakarrik dauden 100 pertsonari** Getxoko Udalarekin lankidetzan.
- **Osasun mentalaren eguna** ospatu genuen “Márcate la Salud Mental” izeneko tailerraren bitartez, Galdamesko Udalarekin lankidetzan.
- **dokuMental** film laburren **jaialdia** ospatu genuen baita ere. 120 proposamen baino gehiago egin ziren eta galan 100 bertaratu izan genituen.
- **Bilboko Udalarekin eta Irala auzoko erakundeekin 2024ko Ogi Festa antolatu genuen**, askotariko jarduera eta tailerrekin.
- Getxoko erakundeekin batera **martxoaren 8ko eta azaroaren 25eko jardueretan** parte hartu genuen.
- Astean behin **“La Batidora” izeneko irrati-programa** ematen dugu Vinilo FMrekin eta Getxoko Udalarekin.
- Getxon hainbat jardueretan parte hartu dugu, Ibilaldian, Inauterietan, Portu Zaharrean, Zubilletan eta San Isidron, Galdamesko San Pedron, Berangoko Santa Anan eta Bilboko Mallonan, eta **umeentzako tailerrak eman ditugu**.
- **Getxoko Arrozak antolatzen parte hartzen dugu**.
- Getxoko gizarte-erakundeekin batera lan egin dugu **Eraldatuz sarean**, komunitatean ekimenak ezartzeko. (Paellak ahotsarekin eta harrera-zaporeak). 200 pertsona baino gehiago biltzen dituzte.
- **Sarekiderekin, Bizkaia Gararekin eta prestakuntza-zentroekin** lan egin dugu praktiketako eta boluntariotzako programak garatzeko.





inpaktua komunitateetan

EMAITZAK



307 EKINTZA

Helburua komunitatea sortzea, kontzientziatzea eta ezagutza partekatzea da.



9 UDALERRI

Jarduerak **Barakaldon, Bilbon, Erandion, Berangon, Galdamesen, Muskizen, Durangon, Gordexolan eta Getxon.**



39 SENTSIBILIZAZIO-HITZALDI

Zuzen-zuzenean, gaixotasun mental batekin bizitzearen esperientziaren inguruan



70 BOLUNTARIO

49 boluntario eta **21** praktiketako pertsona igaro dira Argiatik.



4.480 PERTSONA

Ekintza hauetan **parte hartu** dute.

8,5

BALORAZIOA

Ekintza horiek duten inpaktua **Argiaren misioa lortzen.**

- Gizarte-konpromisoko ekintzak maila oso altuan mantentzen dira. Gainera, **konplexutasuna gehitu da** eta erronka berriak eta publiko berriak sortu dira. Horiek guztiek ekintza eta aukera berrietan parte hartzen dute eta laguntzen diegun pertsonak beren esperientziak zabaltzen dituzte eta rol berriak betetzen hasten dira.
- **Boluntarioen edo praktikak egiten ari direnen kopurua gehitu da**; 2024an 70 izan dira guztira.





profesional


2024an **Argiaren eta profesionalen beharrei erantzuteko prozesuak hobetu ditugu** eta interes-talde guztiak oso pozik daude.

LANGILEEN TALDEA



EMAKUMEAK % 67 GIZONAK % 33

GOGOBETETASUN PROFESIONALA



PRESTAKUNTZA-ESFORTZUA



- BARNE-PRESTAKUNTZA: 5346
- KANPO-PRESTAKUNTZA: 1834
- LANGILE BAKOITZEKO BATEZ BESTEKO ORDUAK: 50

PRESTAKUNTZEN HEBURUAK HAUEK IZAN DIRA:

- Bezeroei arreta hobea ematea
- Gure baliabideen kudeaketa hobetzea
- Langileak zaintzea

II. BERDINTASUN-PLANA

Berdintasunerako Batzorde Negoziatzailea osatzen dute Argiako 5 langilek eta kanpo-aholkulari batek. 2024an lanean aritu dira **Argia Fundazioaren II. Berdintasun Plana** garatzen eta aholkularitza-zerbitzua eta protokoloa eskuragarri dituzte sexu-jazarpenak edo sexuan oinarritutakoak gertatzen direnerako.

LANEKO ARRISKUEN PLANA

Argiako 4 langilek osatutako batzorde bat lanean aritu da 2024an lan-arriskuak prebenitzeko araudia betetzen dela zaintzen eta kontrolatzen, **lan-arriskuen plan batean oinarrituta.**



I. EUSKARA-PLANA

Euskara Batzordean Argiako 4 langile eta kanpo-aholkulari bat egon dira eta 2024an **Euskararen I. Plana garatzen eta sustatzen aritu dira.**





ekonomia



BETEAN AUDITORIAK 2024ko ekitaldiko ARGIA FUNDAZIOAREN urteko kontuen auditoretza-txostena eman zuen.

[AUDITORETZA-TXOSTENA](#)





aliantzak erakundeekin

ERAKUNDE FINANTZATZAILEAK



SARE HAUETAN PARTE HARTZEN DUGU



LANKIDETZAN ARITU GAREN ERAKUNDEAK



PRESTAKUNTZA-ERAKUNDEAK ETA PRAKTIKETAKOAK



